

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko ditu 95 toki erakunderen programazio kulturalak, iaz baino 18 gehiago

Onartutako laguntzak 1,4 milioi euro ingurukoak dira

Ostirala, 2018.eko ekainak 8

Nafarroako Gobernuak, Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 1.378.370 euroko guztizko zenbatekoa osatzen duten bi dirulaguntza-deialdi onartu ditu, Nafarroako 95 toki erakunderen programazio kulturala bultzatzeko.

Musika, antzerkia, dantza, arte plastikoak, lirika, literatura, zinema eta ikusentzunezkoak gisako diziplinetako jardueri zuzendutako laguntza horien helburua da toki erakundeek proiektuak kudeatzeko baliabide handiagoak izatea eta, aldi berean, Nafarroako Gobernuaren lankidetzaz, komunitateko sektore kulturalen garapenean laguntzea.

Honela, Kulturako Zuzendaritza Nagusiak toki erakundeei eskainitako laguntzak indartu ditu, politika kulturalen garapenean lidergo partekatuari eusteko konpromisoari jarraiki. Lurraldeen arteko oreka areagotzearen aldeko apustua sendotuz, erakunde horiei zuzendutako sostengua indartu da, komunitate osoko kudeaketa kulturalaren eragileak diren heinean.

Dirulaguntzak bi laguntza-deialdiri dagozkie: horietako lehena, 872.980 euroko zenbatekoa duen [Udal Platea Local](#) delakoa, Antzerki-Sareari atxikitako udalerrietako arte eszeniko eta musikalen programazioa sustatzeko erabiliko da, ondoko adierazleak kontuan hartuz: talde profesionalen ikuskizunen kontratazioa, publikoarekiko bitartekaritza-jarduerak eta egoitza-proiektuak lantzen dituzten profesionalen kontratazioa, eta programazioaren sustapena eta publizitatea. Kasu honetan, [31](#) toki erakunde (udalak, kultura patronatuak, fundazioak, etab.) jasoko dituzte laguntzak.

Bigarren deialdiak, [Artea eta Kultura](#) deritzonak 517.000 euro jarriko ditu toki erakundeen eskura, musika, lirika, literatura, antzerkia, dantza, arte plastikoak, zinema, ikusentzunezkoak eta programa hau osatzen duten bestelako diziplinetako jarduerak antolatzen. Laguntzak ikuskizunak kontratatzeari, erakusketak programatu eta kontratatzeari, egileen eskubideei eta programatutako jarduerak gauzatu eta ezagutzera emateari lotutako kostuak ordaintzeko erabiliko dira. Bigarren deialdi honetan, 94 toki erakunde izan dira onuradunak, eta horietako 30 bi deialdietako laguntzez baliatuko dira.